



Uztailak 2, 3 eta 4



9:00-14:00



Donostiako EHU

21. Euskararen erabileratik ahozkoaren lanketa planifikatura LHn eta DBHn

Euskararen erabilera eta ahozkoaren lanketa loturik doazen bi bide dira: erabilera ezinbesteko da ahozko gaitasun ona garatzeko, eta gaitasuna beharrezkoa erabili ahal izateko. Ikastaro honetan bi bide horiei begirako zenbait oinarri eta hainbat adibide eta proposamen aurkeztuko dira. Batetik, gutxieneko erabilera bermatzera begira zaindu daitezkeen prozedurak eta erabil daitezkeen tresnak aurkeztuko dira. Bestetik, ahozkoaren lanketa planifikatzera begira eskoletan erabiltzen diren metodologia ezberdinetara egokitu daitezkeen ikuspegi komunikatiboa aurkeztuko da.



Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.



Ikastaro praktikoa izango da. Zenbait oinarritatik abiatuz hainbat eredu eta adibide ikusiko dira.



Iñaki Eizmendi Arsuaga

Ebete hizkuntza-zerbitzueta teknikaria.

Eman izena



LANDUKO DIREN GAIAK

- Euskararen erabilera indartzeko proposamenak:
 - Erabilera helburuak testuingurura egokitzea
 - Irakasle-irakasle harremanean euskararen erabilera zaintzeko irakasle taldearen jokabidea
 - Irakasleen artean euskara erabili dezaten egoerak babestea
 - Lorpenak eta jarraipena
- Ahozkoaren lanketa planifikatzeko oinarriak eta proposamenak:
 - Urratsak aztertzea eta adibideekin ikustea
 - Ulermen estrategiak
 - Ekintza komunikatibo batzuk aukeratzea eta lantzea
 - Ahozkoaren lanketa planifikatzeko testu-generoen mapak
 - Ikastetxeetan aurrera eramateko aukerak
- Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegia eta hainbat proposamen:
 - Ahozkoaren lanketak testuingurua kontuan hartuz
 - Hizkuntza-sozializazioan laguntzera begirako oinarriak eta proposamenak